

BEZEROAK

Gure bezero gehienek amankomunean duten ezaugarria burusoilak direla dira, eta ondorioz, haien itxurarekin ez daudela guztiz konforme, eta aldatzeko desira dutela.

Bezeroen artean, ez dago adin espezifiko bat, hau da, edozein pertsona, edozein adina izanda ilea galdu dezake. Hala ere, salbuespen bat egin dezakegu adina kontuan hartuta, umeak, askotan, umeek ez dituztelako ileordeak jartzen, txikiegiak direlako horrelako gauzetaz arduratzeko, eta beharbada, haien egunerokoan, deserozo daudelako.

Gure bezeroen artean, hiru mota sailkatu daitezke, alde batetik, gaixotasun baten ondorioz ilea galdu duten pertsonak daude. Beste aldetik, genetika edo adin kontu batengatik galdu dutenak daude. Azkenik, ilea galdu ez dutenak, baina ileordeak jartzea gustuko dutenak daude, adibidez, itxura aldaketa bat izateko.

GAIXOTASUNAGATIK

Esan bezala, burusoil izateko modu desberdinak daude, alde batetik gaixotasunak, eta bestetik adina, beraz, hona hemen gaixotasun mota batzuk:

- **Alopezia androgenetikoa:** Herentziazko gaixotasuna, ile-folikuluei eragiten -diena eta ilea pixkanaka murrizten duena.
- **Eflubio telogenoa:** Ilearn erorketa masiboa denbora laburrean, folikulu kopuru anormal bat atsedeen-etapara pasatzen delako (telogenoa)
- **Alopezia areata:** Gaixotasun autoimmunitarioa da, eta adabakietan erortzen da ilea, globulu zuriek ile-folikuluei eraso egiten dietelako.
- **Trikotilomania:** Erauzi izanaren ondorioz ilea erortzea eragiten duen gaixotasun psikologikoa
- **Buruko ile-larrazko ezkia:** Ilea erortzean sortzen den infekzio fungikoa.
- **Obulutegi polikistikokoaren sindromea:** Gaixotasun hormonal, emakumeen artean ilea erortzea eragiten duena, gorputzean androgeno gehiegi egoteagatik.
- Gaixotasunak alde batera utzita, **sukarra, muturreko nekea edo estresak** ere ilearen erorketa sor dezakete.

ADINAGATIK

30 urte betetzean, % 25eko aukera dago burusoiltasun pixka bat izateko. 50 urterekin, gizonen % 50ek gutxienez ile galera nabarmena du. 60 urterekin, gutxi gorabehera bi heren burusoilak dira edo burusoil patroi bat dute.

ESTETETIKA

Egin dugun merkatu ikerketa kontutan harturik inkestatutakoen %20 inguru beraien itxura aldatzeko ileoede bat erostea positiboki ikusten dute. Hemen dugu beste bezero segmentu garrantzitsu bat.